

Perimetrala

Joxean Agirre

Herri batzuk, Zarautz esate bate-rako, oso perimetro urrikoak dira. Aiarrek, beti indar gehia-go izan duelako edo, malekoi ziztrin batekin eta lau baserriekin utzi gintuzten.

Chestertonek badu bere “Txikikeria handiak” liburuan kontakizun bat non maitagarri batek bi mutikori aukera ematen dien erraldoi ala nano izateko. Batek erraldoi izan nahi du, pausoak luzatuz mundua zeharkatu eta Himalaia eta Niagara bisitatzeko. Erraldoi bilakaturik, badoa Himalaiara buruarekin lainoak urratuz eta iristean mendiak muino iruditzen zaizkio; badoa Niagarara eta etxeko iturriko ur txorrota begitantzen zaio. Txiki izatea erabaki duenak, aldiz, zoko bakoi-tzean bazter miragarriak aurkitzen ditu.

Konfinamendu perimetrala iritsi zene-tik Chesterton nana bezala nabil inguruak arakatzen. Santa Barbara gurea da esklusiban. Txatxarromendi edo Pagoeta erdizka eta Talaimendi ere berdina. Esker-rak biotopoa eta padurak utzi zizkiguten, orduan baliorik ez zutelako seguru asko.

Chesterton umea bezala ateratzen naiz etxetik eta orain berriro zabaltzen ari diren Inurritzako errekarri begira jarri eta «ez duk Danubio, baina ez zagok gaizki», esaten diot neure buruari, ahate saldoak hara botatako ogi zatiak jaten ari diren bi-tartean. Urteta aldeko lau baserrietatik ba-rrena, mahastiak inausten ari diren base-rritarrekin hitz egin ondoren jaisten naiz Astira eta laugarren edo bosgarren maila-ko futbol taldeei begira egiten dut tarte bat eta tarteka lehen mailakoak bezain

onak ote diren iruditzen zait, grinari eta gogoari dagokienez behintzat. Etxera joan eta eskuetan “Hitza” dudala pentsatzen dut bertan datozen elkarriketa eta erre-portaje asko ez ote diren egunkari oroko-rrekoak baino interesgarriagoak.

Gazteek ematen didate pena pixka bat. Beti egon dira endogamiaren kontra. Ho-rreratik bilatzen dituzte harreman sexua-fektiboak Tinder, Happn eta urrutiko lige-en aplikazioetan. Itxialdi perimetrala tarteko, noraezean irudikatzen ditut, munduak kolpetik mende bat atzera egin duela irudituko zaie. *Botiloak* horretara-ko egiten dituzte, euren aitona-amonek bezalaxe auzokoekin ligatzeko. Ertzainen buruek haien kontra kargatzeko agindu aurretik gogoeta antropologiko hauen in-guruan hausnartu beharko lukete. •

Maite ezinaren latza

Nekane Zinkunegi
Barandiaran

San Valentin edo maiteminduen eguna omen da bihar. Gaur, ber-riz, torturaren aurkako eguna Euskal Herrian. Izan ere, 40 urte bete dira Joxe Arregi Izagirre zizurkilda-rra poliziaren esku jasandako tortura la-tzen ondorioz ospitalean hil zenetik. Her-tzainak taldeak abesten zuen «ez dute uzten maitatzen gauean», eta abesti ho-rren hitzak buruan bueltaka ditut, maite-minduen egunaren bezperako efemeride edo urtemuga borobil honetan.

Tortura sufritu zuelako Arregik, Cara-banchel espetxeko zeldan usteltzen utzi

zutelako ia, eta espetxeko ospitalean hil zelako, minari eutsi arren, egin ziotena jasan ezinda. Ospitale berean ziren Inaki Agirre, Xose Lois Fernandez Gonzalez, eta Lois Alonso Riveiro, ETA (pm)-ko, GRAPO-ko eta PCE (r)-ko preso politikoak ere. Arregirekin egon eta bere lekukotza jaso-tzeko aukera izan zuten. Horma haietatik kanpora helarazi zuten gutunean adiera-zi zuten, «oso latza izan da!» esaldiare-kin laburbildu zuen Arregik hamar egun haietan pasatakoa.

Latza, bai, duela 40 urtetik hona ehun-ka euskal herritarrek jasan dutena. Askok

sentitu dute bakardadeak irensten zitue-la espainiar zein euskal poliziaren atza-parretan zeuden bitartean. Eta espainiar auzitegietan ez dela justiziarik egiten, eta Estrasburgok Espainia kondenatzen badu ere, tortura salaketak ez ikertzeagatik, Idoia Mendia PSEko idazkari nagusiari entzun behar izan diogu «neurri onarga-rrian» torturatu dela Espainian.

Ez, ez dute uzten maitatzen gauean, ez egunez, ez inoiz. Arregi hil zutenetik 40 urte bete direnean, asko, gehiegi izan dire-lako borrokan irauteko gogoia eduki arren, hiltzea nahiago zutela sentitu dutenak. •